



Unai Fernandez de Betoño - @UnaiFdB
Arkitektoa

Plataforma logistikoa

ndar espekulatiboentzat oztopo izan ohi dira hirigintza eta lurralde antolakuntza. Haien intereserako hazkunde librea arautzen eta mugatzen dutelako. Horregatik, presio urbanistiko handieneko zonetan zailtasun gehiago biltzen dira bertako plangintza egiteko eta eguneratzeko.

Bilbok, esaterako, 1994tik ez du berritu bere Plan Orokorra. Edo Donostialdeak, adibidez, Lurraldea antolatzeke 4/1990 Legea onetsi zenetik dagoeneko 25 urte pasa direnean, oraindik ez du Lurralde Plan Partzialik.

2010ean saiakera bat egin zen. Orduan, Donostialdeko Lurralde Plan Partzialaren hasierako onespina egin baitzen, beste azpiegitura handi batzuen artean Pasaiaiko kanpo-portua aurreikusiz. 90 alegazio jaso zituen Lurralde Plan Partzial desarrollista horrek. Baina uneko baldintzak aldatu ziren orduan: bai politikoki bai ekonomikoki. Ondorioz, bigarren bertsio bat egin behar izan da 2015 honetan. Bihar bertan, azaroak 15, amaituko da alegazioak jartzeko epea. Eta alegazioak jartzeko arrazoiak badaude.

«Izaera estrategikoko areak» dira zalantzarrienak. Haien artean, Lezo-Gaintxurizketa korridoreko plataforma logistikoa ikaragarria da, beharbada, deigarrienetakoa. 91 hektareako azalera hartuko baitu, Gipuzkoako handiena bilakatuz. Alegia, Pasaiaiko portua zerbitzatzeko terminala portua bera (77 hektareako lur-azalera duena) baino handiagoa izatea proposatzen du Donostialdeko Lurralde Plan Partzialak. «Lurralde-eskalako» poligonotzar bat eratu nahi baita, jarduera ekonomiko logistikoa lantzeko, portua, Abiadura Handiko Trena zein au-

tobidea baliatuta. Kosta ahala kosta. Esan gabe baitoa ingurumen-eraginaren ebaluazioak «gogortzat» jotzen duela Donostialdeko lurraldea oraindik gehiago artifizializatzen duen plataforma logistiko horren inpaktua, eta, hala ere, hasierako onespina eman zaiola Lurralde Plan Partzialari. Proposatzen den azpiegitura-mordoak eragiten duen ingurumen-gatazka zehazki zerrendatzen du ebaluazioak: balio agrologiko altuko lurzoruen afekzioa, paisaiaren gaineko inpaktua, lurzoruen artifizializazioa eta horren ondorioak, baso autoktonoen suntsiketa...

Ez legoke soberan, halaber, plataformatzarrak ekar lezakeen gizarte-eraginaren ebaluazio bat. Proiektuak, besteak beste, Lezoren, Oiartzunen eta Hondarribiaren etorkizun urbanistiko, eta, ondorioz, soziala, erabat baldintzatuko duelako. Euskararen giro hauskorra (Oiartzungo zein Hondarribiko euskara gaitasunak % 70eko langa gainditzen du, eta Lezokoa hortik oso gertu dago), adibidez, kaltetuta gera liteke. Zer dio horretaz guztiaz Lurralde Plan Partzialaren Eragin Linguistikorearen Ebaluazioak? A, orduan, noiz egiteko asmoa dago?

Lurralde Plan Partzialak Donostialdeko lurzoruen artifizializazio-maila % 19 areagotuko du. Ez da gutxi. Soilik jarduera ekonomikoetarako 330 hektarea berri okupatzea proposatzen du. *A posteriori* bideratutako neurri zuzentzaileek denbora oso luzea beharko dute egindako kaltea apur bat konpentsatzeko, ingurumen-eraginaren ebaluazioak berak aitortu bezala. Hor-taz, hobe genuke dena *a priori* berriz pentsatu. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO